

Versión móvil

Hemeroteca | Edición Impresa | RSS



14 septiembre 2010

Hoy 14.1 / 21.8 | Mañana 16.4 / 22.7 |

SÍGUENOS también en: [facebook](#) [twitter](#)

Promociones DV Clasificados 11870.com Vivienda Empleo Coches mujerhoy.com Hoyvino

[Portada](#)
[Gipuzkoa](#)
[Deportes](#)
[Economía](#)
[Más Actualidad](#)
[Gente y TV](#)
[Ocio](#)
[Participa](#)
[Blogs](#)
[Servicios](#)
[Alto Urola](#)
[Alto Deba](#)
[Bajo Deba](#)
[Bidasoa](#)
[Comarca](#)
[Costa Urola](#)
[San Sebastián](#)
[Pasaia -Erreñeria](#)
[Tolosa-Goierrri](#)

Estás en: [diariiovasco.com](#) > [Noticias Gipuzkoa](#) > [Noticias Pasaia Erreñeria](#) > **Arraztalo Elkartearen Asanblada Orokorra datorren asteazkenean egingo da Elizalde Herri Eskolan**

OIARTZUN

Arraztalo Elkartearen Asanblada Orokorra datorren asteazkenean egingo da Elizalde Herri Eskolan

12.09.10 - 03:39 - EGARRIZ | OIARTZUN.

Oiartzungo Arraztalo Elkartea herriko gaixo psikikoen integrazioa lortzeko asmoz sortu zen, bai lanean, baita gizarteratzeko orduan ere. Elkartearen pertsona horien senide eta hainbat herritar interesatuk parte hartzen dute. Hurrengo zereginak plangintzatzeko asanblada orokorra antolatu da. Asanblada irekia da proiektu honetan parte hartu nahi duen edozein herritararentzat.

Aipatu Asanblada orokorra, datorren asteazkenean, irailaren 15ean, ilunabarreko 7:00etan, Elizalde Herri Eskolan egingo da, ondorengo gai-zerrenda honen baitan:

Aurreko Zuzendaritza Batzordearen berrespena. Oiartzungo gaixo psikikoen integrazio laboral eta sozialerako Okobi izeneko proiektuaren aurkezpena. Diru-kontuei buruzko informazioa. Senideentzako laguntza eta formakuntza-plana. Bestelako informazioak eta parte-hartailen proposamenak.

Oiartzungo I. Kizki Eguna

Datorren irailaren 19ean, Oiartzungo 1. Kizki eguna ospatuko da Kizki egunaren istorioa Astigarrako 2009 ko irailaren 27 ko sagar uza egunetik dator. Bertan apustu bat egin zuten 300 pertsona biltzea norbera bere kizkiarekin sagar biltze herrikoi batean. Azkenean 311 kizki-lagun bildu zituzten eta marka hautsi ere. Goldea elkarteak antolatu zuten eta oiartzuarrei desafiya bota ere; «ezetz 311 kizki lagun bildu». Oiartzuarrak desafiya hartu egin dute eta egitarauaren antolatzailea Oiartzungo AEK da.

Oiartzuarren asmoa 311 kizki lagun biltzea da Elizalde Herri Eskolako plazan eta horretarako igande pasa bat antolatu dute ondorengo egitaraua honen baitan: goizean azoka: sagarrondoak, sagarraren inguruko liburuak, herramientak, sagar mota ezberdiñak...egongo dira erakusgai.

Marmitako lehiaketa ere antolatu dute eta auzo bakoitzetik bi bikote etorriko dira eta 20 lagunentzako marmitakoa prestatu beharko dute. Epaimahaiak irabazlea aukeratu eta honek saria jasoko du.

Egurdiko 12:30etan sagar biltze desafiya hasiera emango zaio. Sagarrak biltze desafiyoan eta bazkariaren parte hartzeko txartelak Garmendi txokolategian, Garmendia okindegian, Amazkar, Makutso, Miren, Laia eta Ganbara tabernetan egongo dira. Plazan sagar haundi baten irudia marraztuko da eta bertan pixkanaka pixkanaka, kontrolatuz zenbat jende sartzen den (dena erregistratuta egongo baita. Astigarragatik marka hautsi zutenean bertan zegoen idazkarietako bat etorriko da dena ondo doan kontrolatzea) sagarraren barruan jarriko dira. Behin ordu bete igaro ta gero, apustua zertan oinarritzen den esplikatu du hizlariak. Hiru pausu dira: 1.- kizkia altza, 2.- sagarra hartu eta 3.- saskira bota.

Tartean ere Astigarragako eta Oiartzungo bertsolariak bertsolariak egongo dira.

Ondoren, bazkaria izango da, marmitakoa, Ikastolako frontoian. Bere umeekin datozenezako ez dute txartelik erosi beharrik bazkari berezia preparatuko diete jantokian, baina, horretarako aldeztu aurretik apuntatu beharko dira.

Bazkaldu eta gero auzoen arteko desafiya egongo da. Auzo bakoitzeko bi neska eta bi mutilek honako proba hau egin beharko dute: kizkiarekin karga erdi bat (150 kilo) bildu eta zakutan sartu. Ondoren, karga oso bat (300 kilo) leran dutela 10 plaza egin beharko dituzte, karga erdi bat matxakatik pasa eta gurdira bota.

TAGS RELACIONADOS

[arraztalo, elkartearren, asanblada, orokorra, datorren, asteazkenean, egingo, elizalde, herri, eskolan](#)

ANUNCIOS GOOGLE

Cassagrupo

Venta de viviendas unifamiliares y villas de calidad en Guipuzcoa,
[www.cassagrupo.com](#)

KOT kamisetak

Kotoi grafikoakGrafismo sobre algodón
[www.kotgrafik.com](#)

deporte rural vasco

aizkolaristallas con motosierra
[www.herrikirol.com](#)

Afeitado Gillette

Consejos y trucos para lograr unos resultados brillantes ¡Entra ahora!
[www.Gillette.com](#)



ENLACES VOCENTO

Powered by SARENET

© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.
 Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª C.I.F.: B20677878
 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018
 Correo electrónico de contacto contactanos@diariiovasco.com
 Copyright © Digital Vasca S.L. , San Sebastián. , 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.